

IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN ERLAZIO TELEMATIKOA APPeKin

bolunta

boluntariotza eta gizarte-partaidetza
voluntariado y participación social

Bizkaia
FUNDACIÓ

edelundazioa

bbk

IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN ERLAZIO TELEMATIKOA APPEkin

1. Zergatik gaude irabazi-asmorik gabeko erakundeok behartuta Herri Administrazioekin baliabide elektronikoen bitartez erlazionatzera?

[Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak Herri Administrazioekin](#) (14. art., 2. paragrafoa) elektronikoki erlazionatzeko eskubidea eta betebeharra ezartzen du pertsona juridikoentzat.

Lege horrek, azken xedapenetako zazpigarrenean, ezartzen zuen indarrean ezartzeko data (2016/X/2) argitaratzen zen urtea zela; era berean, ezartzen zuen prozedura batzuetarako, betebeharrak hori indarrean ezartzen zen egunetik bi urtez luza zitekeela (2018/X/2). Hori dela eta, **2018ko urriaren 2tik aurrera**, herri administrazioekin erlazionatzeko **betebeharrak hain saihestezina da.**

Era berean, hemendik aurrera administrazioen batek beste administrazio baten aldetik hornitu behar den dokumentazioaren bat eskatzen badigu, ez da beharrezkoa izango ematea; izan ere, eskaera egiten duen administrazioak zuzenean eskatu behar dio dagokion administrazioari. (Adibidez, Udalaren diru-laguntza bat eskatzen dudanean, Ogasunaren ziurtagiria aurkeztu behar dut berarekin ditudan ordainketak egunean daudela erakusteko. Hemendik aurrera, Udalak eskatu behar dio zuzenean Ogasunari, eta guk egin behar dugun gauza bakarra da hori egiteko baimena eman Udalari.)

2. Nola erlaziona gaitzke erakundeek Administrazioarekin, modu elektronikoa?

Irabazi-asmorik gabeko erakundeek onartutako identifikazio elektronikorako bide bat eduki behar dugu, edozein herri administrazioaren aurrean jarduteko.

Onartutako identifikazio elektronikorako bideak erakunde ofizial batek edo alor horretan lan egiten duten enpresek sortzen dituzten [erakundearen ordezkariaren ziurtagiriak](#) dira.



Ziurtagiri hauek, normalean, **kostu bat dute** (ez dira doakoak), **eta, batzuetan, ziurtagiri hori deskargatzen den ekipamenduaren ezaugarri teknikoak ere eskatzen dituzte** (txartel irakurgailua/txipa, software programa zehatza, etab.). Adibide gisa, IZENPERen ziurtagiriaren ordezkariaren salneurriak atxikitzen dira.

Entitatearen ordezkaria ziurtagirien salneurriak

PRODUKTU	PREZIOA BEZA sartuta (21%)
Entitatearen ordezkaria ziurtagiria txartela edo Software-an	92,48€
Entitatearen ordezkaria ziurtagiria Token-a (irakurgailurik ez du behar)	124,51€
USB irakurgailu (hautazkoa, txartelarekin beharrezkoa soilik)	12,10€
Bidalketa seguru baten kostuak * (identifikazio ez presentziala eskaerentzat)	8,20€

Erakundearen ordezkariaren sinadura elektronikoaren ziurtagiria eskatzeko, eskaria egiten duen pertsonak erakunde horren legezko ordezkaria izan beharko du edo botere orokor bat eduki beharko du, izena emandako ahalmenarekin, pertsona publiko edo pribatu mota guztien aurrean erakundea ordezkatzeko. Txartel euskarri, USB Token edo software formatuan eska daiteke.

3. Ba al dago Administrazioekin erlazionatzeko doako moduren bat? B@kQ

Beste Autonomia Erkidego batzuetako edo Espainiako Gobernuko (INEM, Elkarteen Erregistro Nazionala, etab.) Administrazioekin erlazionatzeko, aurreko puntuan azaldu diren iruzkinetan oinarrituta egin daiteke soilik.

Haatik, **Euskal Administrazioekin erlazionatzeko badago beste aukera bat**, inolako kosturik gabe eta inolako ekipamendu tekniko beharrik gabe (txartel irakurgailu, USB, software, etab.). Aukera hori kodeen zerrenda batean oinarritzen da; itsasontzien joko bezala erabiltzen da, edo banku elektronikoan jarduteko koordenaden kodeak bezala. Horren arabera, zenbaki edo letra bat ematen zaio. **B@kQ** (Baku) **deitzen da** eta ZUZENEAN bulegoetan, Foru Aldundietako herritarren arretarako bulegoetan, KZ Gunea zentroetan eta Osakidetzako osasun zentroetan eska daiteke, doan.

B@kQren kodeak pertsona fisiko batek eskatu behar ditu, hau da, pertsona indibidual batek, ez erakunde batek (pertsona juridikoa). Pertsona fisiko hori erakunde baten ordezkaria bada, **erakundearen izenean jardun dezake** bere kode pertsonalekin; **betiere, Eusko Jaurlaritzaren ordezkarien Erregistro Elektronikoan erregistratuta baldin badago**, baimendutako pertsona gisa.


4. Nola erlaziona gaitzke hemendik aurrera ELKARTEEN ERREGISTROArekin?

[Elkarteen Erregistroarekin](#) izapideren bat egitea nahi dugun bakoitzean, bere webgunearen kanal elektronikoaren bitartez egin behar dugu, nahitaez. Horretarako, bi baldintza bete beharko ditugu: **erakundearen legezko ordezkaritza** izan (edo ordezkarien erregistro elektronikoa alta emanda egon), **eta baliozko identifikazio elektronikorako bidea** eduki (Izenpe, NAN elektroniko, B@kQ, etab.).

Horrek esan nahi du Zuzendaritza Batzordearen aldaketa aurkeztera goazenean, adibidez, elkarteen erregistroaren webgunean agertzen zaizkigun **inprimakiak** bete beharko ditugula, **sinatu eta eskaneatu**, **artxiboak PDF formatuan bidali beharko direlako** webgunera.

Gainera, dokumentazioak baliozko erregistro balioduna izan dezan, baliozko modu baten bidez identifikatzeko eskatuko digute (txartel elektronikoa, B@kQ, etab.), eta identifikazio hori ez badaukagu ondo, edo ez bagara Ordezkarien Erregistro Elektronikoa ordezkari gisa agertzen, ezin izango dugu jardun.


Behin dokumentazioa entregatuta, eskaeraren erabakia (batzordearen aldaketarena, adibidez) **Eusko Jaurlaritzaren WEBGUNEko "nire karpeta" izena duen atalera bidaliko da**. Atal hori pertsonala da; beraz, pertsona fisiko bezala sartu behar da. Karpeta horretan, erakundearekin zerikusia duten gauzak agertzeaz gain, norberaren gauza pertsonalak ere egongo dira (osasunaren karpeta, etab.). Ez dago elkartearentzako karpeta bat, baizik eta ordezkari gisa agertzen diren pertsona guztiak sarbidea izan dezakete erakundearen dokumentaziora.




Eraiki nahi den elkarte berri baten kasuan, elkarte sortu duen edozein pertsona fisikok aurkez dezake dokumentazioa Elkarteen Erregistroan, baliozko identifikaziorako bide bat erabiliz, pertsona fisiko gisa.

5. Non jaso dezaket informazio gehiago B@kQ eta Euskadiko Elkarten Erregistroarekin nire erakundeak jarduteko duen moduari buruz?

B@kQ eta identifikazio elektroniko honek herritarrari ematen dizkion aukera guztiak (txostenetarako sarbidea, jakinarazpenak, osasunaren karpeta, etab.) nola erabili jakiteko, KZ Gunea zentrozen sarean ekintza hezigarri batzuk ezarri dira. Bertara, Eusko Jaurlaritzaren webgunetik sar daiteke: www.euskadi.eus.



Elkarteen Erregistroarekin izapideak egiteko moduan zalantzak izaten baditugu, Eusko Jaurlaritzaren ZUZENEAN bulegotara zuzendu gaitzke, bai bertara joanda, bai telefonoz deituta.



Halaber, bolunta aholkularitza zerbitzutik ere orientazioa eskaintzen dizuegu edozein kudeaketa administratibo egiteko, modu elektronikoa: asesoria@bolunta.org